

Ilegorrien anbigutasuna

Josu Lartategi

"Axenario"
Jules Renard
euskaratzailea: Itziar Otegi
Alberdania / Elkar, 2006

Literatura Unibertsaleko *Axenario* hau (*Poil de Carotte*, 1894an argitaratua), Jules Renard loiratarrarena, frantziar literaturako klasiko txiki bat da, eta gurean haur eta gazte literaturan da ezaguntzua; ez hainbeste, barren, helduen literaturan. Arrazoia betikoa. Bertsioak nagusitu ziren garai batean, originalaren agerpen zehatza ezkutatuz. Nolabait azalarekin geratu baitziren bertsiogileak: hots, batetik mutiko ilegorri bitxi xamar eta anbigua, inguruan maitasun handiegirik ez duena; bestetik, ama urrun eta zitalaren irudia. Mutikoa zein ama eredu anbiguo samarrak dira; lehenbizikoak etika naturalera jotzen du, eta bigarrenak zentzubako krudeltasunera. Liburua, guztiarekin ere, hori baino gehiago da, eta ez da, noski, gazte literatura, helduen literatura betea baino. Are gehiago, egingo nuke gaztetxoei ez zaiela askorik gustatuko, idazlearen ikuspegi ironikoa markatuegia delako.

Liburu honetara hurbiltzen denari bitxia egingo zaio teknika nahasia: antzerkia trazuak hemen, pasarte poetikoan han, pasadizo laburrez eginiko nobela, kontakizun zatikatua (gutunak, oroigarri bilduma... etab.). Gainera, egilearen begirada, nagusiki Axenario mutikoaren ondoan badago ere, gehiegitan bihurtzen da jainkozko eta ironikoa. Esan ohi da idazle iraultzailea izan zela. Nire iritziz eraginagatik du garrantzia, sortu lanagatik baino.

Oso lortuak iruditzen zaizkit une batzuetan irudiak. Satorrarena antologikoa da. Nola jipoitzen eta torturatzen duen. Nola nahi duen hil. Nolako gorrotoa dion behingoz hiltzen ez delako. Nolako amorrusuz jaurtitzen duen lurrera, tripa-hezurak lehertaraziz. Nola iradokitzen digun satorra Axenario bezalakoa dela, hiltzeari utzi dion piztia.

Lepic andrea, Axenarioren ama, literatur irudien antologietan dago, ama anker urrun gisa. Axenariok adinako garrantzia dauka kontakizunean. Elkarri kontra egiten dioten eta elkar eusten dioten indar bi dira, argitzalez beteak biak hala biak.

Axenario, pertsonaia nagusia, aurpegi anitzeko mutikoa da. Maitagarria izan zitekeen baina badu zerbait amoralta, badu piztien naturaltasun basatitik zerbait, bizirik eusten diona. Haren ekintzak era askotakoak dira; batzuk bere burua babestekoak; beste batzuk doakoak, zentzu jakinik gabeko bortizkeriaz beteak. Interes pertsonalak ere baditu, bekaitza... eta abar. Ez da, noski, mutiko idealizatua, naturaren indarra duen izaki ilegorria baino, ongiat eta gaizkiaz harago bizi den sator ilegorri hilezina.

Deia, 2006-11-17